

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**ORDIZIAKO UDALA**

*«Victor Mendizabal-Ordizia ikerkuntzarako V. beka emateko deialdia.*

2019ko otsailaren 4ko Alkatzetza 85 Dekretu bidez erabaki zen «Victor Mendizabal» ikerkuntzarako V. beka emateko oinarriak onartzea eta deialdia egitea. Ondoren, oinarriak argitaratzen dira jendeak jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*«Victor Mendizabal-Ordizia» ikerkuntzarako V. beka emateko deialdirako oinarriak.*

Ordiziako Udalak kultura eta hezkuntza arloan duen helburuetako bat Ordiziari buruzko azterketak bultzatzea izanik «Victor Mendizabal – Ordizia ikerkuntzarako V. beka» deialdia egitea erabaki du. Deialdia bi urtetik behin egiten da.

Deialdi hau oinarri hauen bidez arautuko da. Ordiziako Udalak oinarri hauetan aurreikusitako gabeko gorabeherak konpondu ahal izango ditu, eta horretarako azaroaren 18ko 38/2003 dirulaguntzen Legea eta hori garatzen duen erregelamendua erabiltzeko dituzte.

**1. Xedea eta ezaugarriak.**

1.1. Deialdiaren helburua da humanitateen, gizarte-zientzien eta natura-zientzien arloko ikerkuntzarako ohitura suspertzea eta Ordiziako herriari buruzko azterketak bultzatzea. Ikerketa lan hauen aztergaiak Ordiziari edo/ eta ordiziarrei buruzkoak izan beharko dira eta irekia da iker daitezkeen gai guztiekiko: Historia, Arte, Ondarea, Arkeologia, Geografia, Ekonomia, Soziologia, Etnologia, Hizkuntza, Literatura, Folklore, Turismoa, Abeltzaintza, Industria, Biologia, Ingurumena etab.

1.2. Beka honen egitaritza epea 12 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.

1.3. Beka honen diru zenbatekoa 7.000 eurokoa izango da.

1.4. Ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabekoa izan behar du.

1.5. Ondoko ekintza hauek ezingo dute dirulaguntzarik jasotzeko deialdi honen bidez:

a. Azaroaren 17ko 38/2003 dirulaguntzen Legeko 13.2 eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean aurkitzen direnak.

b. Konstituzioak 14. artikuluan jasotzen dituen eskubideen aurka doazen elkarte edo erakundeetatik datozen proposamenak ere ez dira aintzakotzat hartuko (jaiotzagatik diskriminatzea, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iriztiagatik).

**2. Izangaiak.**

2.1. Deialdian norbanakoez nahiz horretarako osatutako lantaldeek parte hartu ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, taldearen arduradun bat izendatu beharko da.

**AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA**

*Convocatoria para la concesión de la V beca de investigación «Victor Mendizabal»-Ordizia.*

Por Decreto de Alcaldía n.º 85 de fecha 4 de febrero de 2019 se aprobaron las Bases y convocatoria para la concesión de la V beca de investigación «Victor Mendizabal», las cuales se publican a continuación para general conocimiento y efectos.

*Bases de la convocatoria de la V beca de investigación «Victor Mendizabal» - Ordizia.*

El Ayuntamiento de Ordizia cumpliendo con uno de sus objetivos culturales y educativos, el dirigido a impulsar estudios sobre Ordizia, establece la presente convocatoria de la «V beca de investigación Víctor Mendizabal- Ordizia», beca que se convoca cada dos años.

La convocatoria se regirá por las presentes bases. En lo no regulado por las mismas, por la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 18 de noviembre y por el Reglamento que desarrolla la misma.

**1. Objeto y características.**

1.1. El objeto de la beca es fomentar el hábito de la investigación en áreas como humanidades, ciencias sociales y ciencias naturales. Los labores de investigación se centrarán en cualquier aspecto que tenga como marco referencial Ordizia y sus gentes. Los estudios están abiertos a cuantas materias y disciplinas sean susceptibles de investigar: Historia, Arte, Patrimonio, Arqueología, Geografía, Economía, Sociología, Etnología, Lengua, Literatura, Folklore, Turismo, Ganadería, Industria, Biología, Medio Ambiente etc.

1.2. El plazo de ejecución de la beca será de 12 meses, a partir del día de adjudicación de la beca.

1.3. La cuantía de la beca será de 7.000 euros.

1.4. El trabajo de investigación deberá ser original y no se podrán presentar trabajos ya publicados.

1.5. Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria las siguientes actividades:

a. Aquellas en que concurren en alguna de las circunstancias previstas en el art. 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b. No serán consideradas las propuestas provenientes de asociaciones o entidades que conculquen derechos constitucionales, art. 14 (discriminación por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión).

**2. Candidatos.**

2.1. Podrán participar en la convocatoria personas a título individual como colectivo. En el supuesto de tratarse de un grupo de personas, deberá de nombrarse una persona responsable del grupo.

### 3. Dokumentazioa eta aurkezpeneko epea.

3.1. Eskaerak eta gainerako agiriak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 2019ko martxoaren 22a arte aurkeztu ahaliko dira, Ordiziako Udalean edo Udalaren Egoitza Elektronikoa, behar den bezala sinatuta eta beteta, ondorengo agiri hauekin batera:

– Ikerkuntza proiektuaren Txosten-Laburpena (gehienez 20 orri) eta bertan azaldu beharko dituzte proiektuaren oinarriko nondik-norakoak, metodologia, aztergaiak, erabiliko dituzten iturburuak eta lana zein hizkuntzatan idatziko duten.

– Izangaien Curriculum vitae-a. Ondorengo alderdiak zehaztuko dira bertan:

– Prestakuntza (titulazioak, hizkuntzak, masterrak, gradu-ondoko ikastaroak,...).

– Lan esperientzia (lanak, argitalpenak, sariak, beste beka batzuk,...).

Meritu horien inguruko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

– Eskatzailearen lan egoera ziurtatzen duen agiria.

3.2. Eskatzaileak aurkezturiko dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, interesatuari galdutako zaiio hamar eguneko epean akatsa konpontzea. Hala egingo ez balu eskaeran atzera egin duela ulertuko da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### 4. Epaimahaia eta esleipen prozedura.

4.1. Ordiziako Udaleko Kultura Delegazioak izendatuko du epaimahaia.

Epaimahai honek ahalmena izango du, aurkeztutako ikerketa proiektuak ulertzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatzeko, eta behar izanez gero, egileek Epaimahaiaren aurrean beren Memoria-Laburpena aurkeztu eta azaldu dezaten eskatzeko.

Eskarien ebaluaketa, ondorengo baremoa kontuan hartuz egingo da:

– Memoria-Laburpena: Gehienez 60 punturekin baloratuko da. Proiektuek deialdiaren helburuekiko daukaten interesa, zehaztasun zientifikoa eta egokiera kontuan hartuko da, eta gaiaren originaltasuna eta gutxien ikertuta dauden garai kronologikoen azterketa ere bai.

– Curriculum vitae-a: Gehienez 30 punturekin baloratuko da. Bekaren xede diren gaiarekin zerikusia daukaten prestakuntza eta lan esperientzia baloratuko da, edo pertsonalki hobekuntza ekarri eta aurkeztutako lanean eragin zezaketanak. Kontuan hartuko da prestakuntza, esperientzia, argitalpenak, beka, sariak, lanak,

– Euskaraz aurkeztutako lanei 10 puntu esleituiko zaizkie.

– Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, langabezian dagoela egiaztatzen duen izangaia aukeratuko da.

4.2. Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du oinarri hauek ulertzeko eta deialdia garatzerakoan aurreko klausuletan zehazki aurreikusi gabeko arazorik sortuz gero, hauek erabakitzeko.

### 4.3. Puntuaketa:

– Eskatzailearen puntuazioa, epaimahaikide bakoitzaren puntuak gehitu eta bataz bestekoa izango da. Epaimahaikide guztiek dute erabakitzeko eta puntuazioa jartzeko eskubidea.

– Puntu gehien duen eskatzailea proposatuko da beka jasotzeko eta honek onartuko ez balu edo adierazitako merituek

### 3. Documentación y plazo de presentación.

3.1. El plazo de presentación de las solicitudes y el resto de la documentación comenzará el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, hasta el 22 de marzo de 2019. Las solicitudes deberán ser entregadas en el Ayuntamiento, o en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Ordizia debidamente cumplimentadas y selladas, acompañadas de la siguiente documentación:

– Memoria-Síntesis del proyecto de investigación (máximo 20 folios) en la que especifiquen las directrices básicas del proyecto, la metodología y unidades analíticas, así como las fuentes e idioma en que se presentará el trabajo.

– Curriculum vitae de los candidatos. Especificando los siguientes extremos:

– Formación (titulaciones, idiomas, masteres, cursos de postgrado...).

– Experiencia Laboral (trabajos, publicaciones, premios, otras becas...).

Se deben aportar los documentos justificativos de dichos méritos.

– Justificante acerca de la situación laboral del solicitante.

3.2. Si la documentación presentada por el solicitante no fuera completa o no reuniera los requisitos exigidos, se requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane la misma. En caso de no hacerlo tendrá por desistido de la misma de conformidad con el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

### 4. Tribunal y el procedimiento de concesión.

4.1. La Comisión de Cultura del Ayuntamiento de Ordizia designará un jurado al efecto.

Este Tribunal quedará facultado para requerir toda aquella información complementaria que considere necesaria para una perfecta comprensión de los proyectos de investigación presentados, así como, en su caso, la personación y explicación de la Memoria-Síntesis por parte de sus autores ante el propio Tribunal.

La evaluación de las solicitudes se hará teniendo en cuenta el siguiente baremo:

– Memoria-Síntesis: Se valorará hasta un máximo de 60 puntos el interés, rigor científico y adecuación de los proyectos a los objetivos de la convocatoria, así como originalidad del tema y análisis de períodos cronológicos menos estudiados.

– Curriculum vitae: Se valorará hasta un máximo de 30 puntos la formación y experiencia laboral que tengan relación con las materias objeto de la beca o que han supuesto una mejora personal que pueda redundar en el trabajo presentado. Se tendrá en cuenta la formación, experiencia, publicaciones, becas, premios, trabajos.

– Se valorará con 10 puntos a los trabajos presentados en euskera.

– A igualdad de puntuación se seleccionará a la persona candidata que acredite estar en desempleo.

4.2. El Tribunal Calificador queda facultado para la interpretación de las presentes bases, así como para la resolución de cuantas incidencias no previstas explícitamente en las cláusulas precedentes pudieran presentarse en el desarrollo de la convocatoria.

### 4.3. Puntuación:

– La puntuación obtenida por cada solicitante será la media de la suma de puntos de cada miembro del tribunal. Todos los miembros del tribunal tienen derecho a decidir y a puntuar.

– Se proclamará beneficiario de la beca a la persona solicitante que obtenga más puntuación y si ésta la rechazara o si no

egiaztatuko ez balitu, hurrengoa proposatuko da. Hala ere, epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

#### 5. Bekadunaren betebeharrak.

5.1. Onuradunak, beka hori onartzen duela idatziz jakinarazi beharko du, horren berri ematen zaionetik gehienez hogei egun naturaleko epearen barruan.

5.2. Lanak behin betikoz amaitutakoan, euskaraz nahiz gazteleraz idatzita –paperean eta euskarri informatikoan– Ordiziako Udaleko Kultura Sailean aurkeztuko dira, 1.2 atalean aipatzen den bezala.

5.3. Horrekin batera, bekaren bukaeran memoria (ikerlana beraren azken erredakzioa) aurkeztu beharko du. Lan horren hiru ale entregatuko dira, tarte bikoitzez mekanografiaturik, koerlatiboki orrialdezatua eta koadernaturik, baita euskarri informatikoan ere.

5.4. Lanaren luzerak gutxienez 100 orrialde izango ditu, orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki zeinuz, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balago lanaren bukaeran, eranskin gisa, erantsiko da. Horrelako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoia izan beharko du. Edozein kasuan, lanak gutxienez testuko 100 orrialderen baliokidea izan behar du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontutan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxienekoak betetzeko.

5.5. Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen dituen deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

5.6. Arrazoi garrantzitsuren batengatik egileetakoren batek bere ikerkuntzan funtsezko aldaketak egin beharko balitu edo finkatutako epearen barruan lana amaitzerik ez duela aurreikusiko balu, alde zuzenetik Kultura Sailari adierazi beharko lioke, behar bezala arrazoituta eskaera baten bidez. Honelakorik gertatuz gero, berriro Epaimahai Kalifikatzailea deituko litzateke eta honek, egoeraren arabera, onartu edo baztertuko litzuzke aldaketa eta luzapen horiek, onartzuz gero beti ere lanak entregatzeko epe berria ezarri.

#### 6. Ordainketak.

Laguntza eman aurretik, dagozkion izapide administratiiboak gauzatu beharko dira, eta ondoren zehazten den moduan ordainduko da:

– Kopuru osoaren % 30, onartzen den une berean, aurre-ordainketa moduan.

– Kopuru osoaren % 30, beka ematen zaionetik lana aurkeztu bitarteko epearen erdian, horretarako egindako lanaren eta egingo denaren azalpen-txostena aurkeztu beharko duela-rik.

– Gainontzeko % 40, bekak dirauen epearen amaieran, emaitzak aurkeztuta.

Lana bukatuko ez balitz bekadunak emandako diru guztia itzuli beharko lioke udalari, sortutako kalte eta galerengatik udalak eska dezakeen kalteordainaren kalterik gabe. Ikerlanak sor ditzakeen gastuak bekadunaren kontura izango dira.

#### 7. Lanen jabetza.

Lanen jabea Ordiziako Udala izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edota partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, egoki deritzonenean. Beti ere lanaren egileak aipatu beharko ditu.

acreditara los méritos alegados, se proclamará persona beneficiaria al siguiente de la lista. El tribunal calificador podrá declarar desierta la beca, si la calidad de los trabajos no fuera la esperada.

#### 5. Obligaciones de la persona beneficiaria de la beca.

5.1. La persona beneficiaria deberá comunicar por escrito la aceptación de la Beca en un plazo máximo de veinte días a partir de la fecha de comunicación de la concesión de la misma.

5.2. El trabajo definitivamente concluido, redactado en euskera o castellano, deberá ser entregado –en papel y soporte informático– en el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Ordizia en el plazo estipulado en el apartado 1.2.

5.3. Deberá asimismo presentar la memoria (redacción final de la investigación) al término de la duración de la beca. Se entregarán tres ejemplares del trabajo, mecanografiados con doble espaciado, con las páginas numeradas correlativamente y debidamente encuadrados, además de presentarse en soporte informático.

5.4. La extensión del trabajo será como mínimo 100 páginas, 30 líneas en cada página y 60 dígitos en cada línea, salvo en el caso de las páginas dotadas de gráficos, fotografías o similares. Los elementos no de texto, debidamente acompañados del pie correspondiente, se podrán insertar en las propias páginas o al final como anexos, en caso de necesidades de espacio. En todo caso, el volumen del trabajo escrito debe equivaler, como mínimo a 100 páginas de texto. Las páginas correspondientes a los anexos no computarán a la hora de cumplir con los mínimos establecidos en este punto.

5.5. El trabajo deberá ir acompañado de un resumen de unas 30 líneas y de una selección de descriptores que ofrezcan una idea clara acerca de su contenido, además de presentarlo en euskera, castellano, francés, e inglés.

5.6. Si por causa excepcional la persona becada hubiera de modificar sustancialmente su investigación o previera la imposibilidad de dar por concluida la misma en los plazos prefijados, deberá ponerlo en conocimiento del Departamento de Cultura, a través de solicitud debidamente razonada. Si así fuera, se procederá a convocar nuevamente al Tribunal Calificador el cual, valorando las circunstancias concurrentes, procederá a estimar o desestimar las modificaciones o prórrogas, fijando, en su caso, el nuevo plazo de entrega.

#### 6. Devengos.

El abono de la ayuda se efectuará, previos los trámites administrativos oportunos, de la siguiente forma:

– El 30 % del importe total, en el momento de la concesión de la beca, en concepto de anticipo.

– El 30 % del importe total, a la mitad del período de concesión de la beca y previa presentación de una memoria explicativa del trabajo realizado y del que se vaya a realizar hasta el final del período de la ayuda.

– El 40 % restante, al final de la vigencia de la beca y previa presentación de los resultados.

En caso de no terminar el trabajo, la persona becada deberá devolver al Ayuntamiento todo el dinero recibido, sin perjuicio de la indemnización que el ayuntamiento pueda exigir por daños y perjuicios. Los gastos inherentes al trabajo de investigación serán a cuenta de la persona becada.

#### 7. Propiedad de los trabajos.

La propiedad de los trabajos será del Ayuntamiento de Ordizia. El Ayuntamiento de Ordizia se reserva la facultad de proceder a la publicación, reproducción parcial o total del trabajo, individual o conjuntamente con otra entidad y mediante convenio. En todo caso se citará la autoría del trabajo.

Udalak sortutako materiala aurkeztu eta lau urteko epean argitaratu ez badu, egileek material hori erabili ahal izango dute egokien iruditzen zaien moduaren bidez plazaratzeko. Egileek orduan jasotako bekaren aipamena egin beharko du (bekaren eta beka eman duen erakundearen izenak jarritz) eta udalari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

#### 8. Gorabeherak.

Aurreko klausula horietakoren bat beteko ez balitz, Beka indarririk gabe geratuko litzateke eta onuradunek jasotako dirua itzuli egin beharko luke.

Deialdi honetan parte hartzeak, oinarri hauek onartzea dakar.

#### 9. Datu pertsonalen babesa.

Eskatzaileak/ek bere/euren erantzukizunpean adierazten du/ dute eskabide honetan jarritako datuak egiazkoak direla. Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa (RGPD), datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea direla-eta, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa betetzeko, jakinarazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak Ordiziako Udaleko Eskatzaileen Erregistroan sartuko direla.

Hori guztia argitaratzen da Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betetz eta bertan aurreikusitako ondorioetarako.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomi Elkarateko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Horrez gain, agindu horretan adierazitakoari jarraiki, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik berraztertze-ko errekurtsoa jartzeko eskubidea izango dute doakienek nahi izanez gero, Udal Batzarrean, aipatu erabakiak eta ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita hilabeteko epean.

Ordizia, 2019ko otsailaren 5a.—Jose Miguel Santamaria Eceiza, alkatea. (749)

Si el Ayuntamiento no publica el trabajo en el plazo de cuatro años las personas beneficiarias podrán publicar el mismo de la forma que estimen más conveniente, debiendo en la publicación mencionar la beca concreta, así como la entidad convocante de la misma y entregarán 20 unidades publicadas al Ayuntamiento.

#### 8. Incidencias.

El incumplimiento de cualquiera de las cláusulas precedentes llevará consigo la anulación de la Beca y la devolución por parte de la persona beneficiaria de los ingresos percibidos.

La participación en la convocatoria presupone la total aceptación de estas bases.

#### 9. Protección de datos personales.

La(s) personas(s) solicitante(s) declara(n) bajo su responsabilidad que los datos consignados en esta solicitud son ciertos. En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), relativo a la protección de las personas físicas con respecto al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de dichos datos le informamos de que los datos de carácter personal aportados formarán parte del Registro de Solicitantes del Ayuntamiento de Ordizia.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo dispuestos en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y a los efectos en él previstos.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de la Ordenanza en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo, los referidos interesados podrán interponer contra la presente resolución, recurso de reposición ante el Pleno del Ayuntamiento, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ordizia, a 5 de febrero de 2019.—El alcalde, José Miguel Santamaría Eceiza. (749)